

**2021EKO UZTAILAREN 27AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz
Mikel Iturbe Saizar
Olaia Nieto Legarra
Leticia Aristi Oria
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Jose Ramón Epelde Irizar
María Cristina Santos San Sebastian
Marta Castrillo Iturralde

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:30etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko uztailaren 27an arratsaldeko 19:30etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2021/06/29KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Zinegotziek bere aldeko onarpena eman diote aktari.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO EKAINAREN 23TIK UZTAILAREN 21ERA (2021/157 - 2021/183).

Alkatetzak 2021eko ekainaren 23tik uztailaren 21era bitartean (2021/157-2021/183) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 183/2021 ALKATE DEKRETUA BERRESTEA: IZFEREKIN SINATUTAKO HITZARMENA.

Gorka Murua alkateak hartu du hitza eta azaldu du IZFEREKIN hitzarmena berritu behar eta hau udaletxearen zerbitzuak hobekigo eman ahal izateko ezinbesteko baliabidea dela, laguntza tekniko eta juridikoa eskaintzen baitute.

Gorka Alkateak galdetu du ea zenbateko iraupena izango duen hitzarmenak, Irantzu Idazkariak erantzun du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren legean ezarrita dagoen bezala 4 urteko iraupena duela, beste 4 urtez luzagarria izateko aukerarekin. Berretsi beharreko dekretuak honela dio:

183/2021 ALKATE DEKRETUA

GORKA MURUA MACUSO jaunak, Irurako Udaleko alkateak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau:

IKUSIRIK

IZFE SA - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA sinatzeko beharra duela udal honek.

Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bere Lurralde Historikoetako Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.5. artikulua Lurralde Historikoei esleitzen die toki-erakundeentzako laguntza eta aholkularitza teknikoaren arloko eskumen eskusiboa duela

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1. artikulua Aldundiaren berezko eskumenen artean ezartzen du, nolahi ere, udal-zerbitzuen arteko koordinazioa, udal-eskumeneko zerbitzuak probintziako lurralde osoan egoki egitea bermatzeko; udalerriei laguntza eta lankidetzak juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa ematea; eta, bereziki, Administrazio elektronikoari lotutako zerbitzuak eskaintzea 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan. Baldintza hori betetzen dute gaur egun Gipuzkoako 88 udalerrietatik 81k.

Bestalde, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (ETEL), 17.1.30) artikuluan xedatzen duenez, udalerriek beren eskumenak baliatu ahal izango dituzte honako arlo hauetan: "teknologia berrietarako sarbidea antolatzea eta kudeatzea, administrazio elektronikoa, prozedurak arrazionalizatzea eta sinplifikatzea, eta, bereziki, udalerrian herritarrek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera efiziente eta jasangarrian parte har dezaten sustatzea".

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- IZFE SA - informatika zerbitzuen foru elkartearen eta Irurako udalaren arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA.- Datorren Udalbatzarrean erabakia berrestea.

HIRUGARRENA.- Interesatuari eta kontuhartzaitzari akordio hau jakinaraztea.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, Dekretu hau izenpetzen dut.

Gorka Murua Macuso

Nire aurrean

Alkateak

Elektronikoki sinatua

Irantzu Arrizabalaga Gainza
Idazkariak

Elektronikoki sinatua

4.- UDALETXE BERRIAREN MAILEGUA KUTXABANK ENTITATEAREKIN ONARTZEA.

Gaia hau diktaminatu gabe dator eta Alkateak aurretik gaia tratatzeko bozketa egiteko eskatu du, Bozketa gaia tratatzea: 5 aldeko bozka Eh Bildu taldeak, Abstentzioa: 4 boto EAJ taldeak, beraz gaia tratatzera pasa dira.

Ana Leunda zinegotziak esan du Ogasun batzordea ez dela egin eta gai honi buruz ez dutela informaziorik jaso eta ez dutela bozkatuko. Ez zekitela ezer eta ez zaiela "formak" batere gustatu; ez zaigu ondo iruditzen.

Irantzu Arrizabalaga Idazkari-Kontuhartzaileak adierazi du, Alkateak galdetu zuela Ogasun batzordea egiteko gairik bazegoen eta erantzun zion, gai hau askotan hitz egin dela eta ez dela inongo aldaketarik egon, beraz ez dela zertan egin behar batzorderik.

Idazkariak, maileguaren baldintzak irakurri ditu eta beste bi banku entitateek emandako informazioa azaldu du, KUTXABANK entitatearen baldintzak hoberenak direla adieraziz.

Gorka Alkateak gaineratu du, obraren gauzatzea ze martxaten dihoan, hau da, proiektua lizitatuta nahi dugula lehen bait lehen eta urrian obrekin hasteko aukera aztertzen dugula.

Halaber, Eusko Jaurlaritzatik 175.000 €ko dirulaguntza jaso dugula udaletxeko azkeneko solairuko zerbitzu berria ezartzeko eta Europatik etorri daitezkeen dirulaguntzen ikuskizun gaudela.

Hurrengo gaiarekin lotuz (apaiz etxearen alokairua obrak irauten duten bitartean udal bulegoak bertan ezartzeko), adierazi du udaletxeko obrak eragingo dizkigun albokateen gastua arintzeko (trasladoa, egin beharreko telekomunikazio eta obra txikiak, eta abar.) Gipuzkoako Foru Aldundira joango garela, beharbada dirulaguntza zuzenik jaso ez arren udaletxea berritzeko, trasladorako zerbait lagundu ahal izango dutelako.

ALKATEAREN PROPOSAMENA

2021eko aurrekontuak aurkeztu genituen batzorde eta Udalbatzatan esan genuen bezala Udaletxea eraberritzearen proiektua gure Gobernu programan jasota zegoen eta horretan lanean ari gara. Egun aurreproiektua definituta dago eta exekuzio proiektuaren idazketako azken fasean ari gara lanean.

Oinarrizko proiektua 1,2 miloi eurotako kostua aurreikusten du. Horrekin batera zuzendaritza, segurtasunak, ekipamenduak eta bestelako gastu batzuk ere egon daitezkeela kontutan izanda, 2021eko aurrekontuetan 1,2 milioiko kreditua isladatu genuen.

Mailegua kontratatzeko dagokion prozedura burutu eta jasotako eskaintzak aztertu eta gero, Udalbatzarrari proposatzen diogu:

2021ko aurrekontuan aurreikusitako 1,2 milioiko kreditu eragiketa Kutxabank entitatearekin egitea, betiere ondorengo baldintzapean:

Kopurua: 1.200.000,00 €

Epea: 10 urte

Gabealdia: 2 urte

Interes-tasa: 0,39 fijo*

Komisiorik gabe

Biribiltarik gabe

Bermea: Udal Finantzaketako Foru Funtza

Iruran, 2021eko uztailaren 21ean.-ALKATEA

Gaia bozkatu da, ALDE: 5 bozka Eh Bilduko zinegotziek, Abstentzioa EAJko zinegotziek. Maileguaren gaia onartua geratu da.

**Idazkariaren oharra.- akta transkribitzeko orduan ohararazi da*

-Amortizazio finkoa, hiruhilean behin ezabatu

-Interes-tasa: urteko Euriborra + 0,39 puntuko diferentziala, idatzita dagoen tokian 0,39 fijo izan behar zela KUTXABANKek egindako eskaitzaren arabera.

5.- SAN MIGEL PARROKIAREKIN ALOKAIRU KONTRATUA ONARTZEA.

Gorka Alkateak hartu du hitza eta aurreko gaiarekin lotuaz Irurako Apaiz etxea deiturikoa erabiltzeko baimena eskatu dugula eta beste behin ere, Parrokiko taldeak ez duela inongo oztoporik jarri; jarraian azaldu ditu zein baldintza eta prezioan egingo del alokairu kontratua.

TXOSTENA.

SAN MIGEL GOIANGERUAREN PARROKIAREKIN ALOKAIRU KONTRATUA SINATZEKO BALDINTZAK.

Udala, lanean dabil etengabe, udaletxe berriaren obra ahalik eta azkarren lizitatu eta hasi dadin, hori dela eta ezinbesteko jotzen du udal bulegoak lekuz mugitzea eta horretarako leku aproposa da herriko plazan dagoen "Apaiz etxea" deritzaion eraikuntza.

San Migel Goiangeruaren Parrokiko kideek beraien adostasuna azaldu dute eta erabaki hauek hitzarmen edo alokairu kontratu bidez gauzatuko dira.

Hitzartu beharreko baldintzak.-

-IRAUPENA : udaletxe berriaren obra amaitu bitartean kontratua indarrean egotea.

-PREZIOA: 1.500€ hilean (BEZa barne)

-BALDINTZAK:

-Udalak bulegoak egokitzeko aukera (instalakuntzak eta beharretara egokitzeko erreforma

egiteko aukera izatea).

-Parrokiko taldeak bilerak egin nahi dituzten ganbarako aretoak erabiltzeko aukera izatea, beti ere programatuak dauden ekintzak oztopatu gabe.

Iruran, 2021eko uztailaren 22an..-IDAZKARI - KONTUHARTZAILEA.

BOZKETA, ALDE: 9 bozka, 5 Eh Bilduko zinegotziek eta EAJko 4 zinegotziek.
Aho batez onartua geratu da.

6.- 2021. URTEKO 2. HIRUHILABETEKO BERANKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMAN

Irantzu Arrizabalaga idazkari-kontuhartzaileak hartu du hitza eta lehenengo legeak horrela behartuta udalbatzarrari berri eman behar zaiola 3 hilabetez behin eta, adierazi du ordaintzeko batz besteko epearen datua irurako udalean oso ona dela.

TXOSTENA

2021eko 2º HIRUHILABETEAN EKITALDIAN ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEA.

2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzkoak, ekarri du batez besteko epea kontzeptua (OBE). Kontzeptu honek azaltzen du zor komertziala ordaintzeko behar izan dugun denbora, edo, izan den atzerapena. Horrela Administrazio Publiko guztiek, gardentasun- ariketa bat eginenez, ordaintzeko batez besteko epea argitaratu beharko dute.

Atxikita dauden orrietan Irurako Udalarari 2021eko 2º hiruhileko ordainketa epeari buruzko txostenak jakinarazten dizkizuet.

Hau da,

-1º Hiruhileko Epea : 1,01 egun.
Lege barruko muga : 30 egun dira.

Iruran, 2021eko uztailaren 22an.
IDAZKARI - KONTUHARTZAILEA.

7.- 2021. 2 HIRUHILABETEKO URTEKO EXEKUZIO TXOSTENAREN BERRI EMAN”.

Irantzu Arrizabalaga idazkari-kontuhartzaileak hartu du hitza eta lehenengo legeak horrela behartuta udalbatzarrari berri eman behar zaiola adierazi du, ondoren, exekuzio txostenean azaltzen diren datuak udalaren egoera ekonomikoaren ingurukoak direla, zenbat ordainketa eta sarrera egon diren adierazten dela.

Batzarkideei galdetu die zalantzaren bat dagoen eta ez dute zalantzarik adierazi.

8.- GALDE-ERREGUAK.

Ez dago.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:50tan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.